

Beatriz Bermúdez Rodríguez



“YAPONI, EL NIDO DE LA LENGUA” recoge una serie de grabaciones en video y audio realizadas por Beatriz Bermúdez R. y John Petrizzelli, entre el pueblo indígena mapoyo hace más de 10 años. Los mapoyo habitan en la Guayana venezolana, en una zona cercana al río Orinoco y delimitada por dos de sus afluentes, la cual es reconocida por el pueblo mapoyo como su territorio ancestral, su espacio vital. Obtener su titularidad legal y ser reconocidos como indígenas a pesar de haber perdido su idioma, ha sido parte de un largo proceso de lucha de este pueblo indígena.

Las grabaciones registran principalmente el testimonio de las mujeres y hombres protagonistas de esta lucha, junto a los que discurre, paralelamente, la reflexión personal de Beatriz ante el proceso de cambio y permanencia, idioma e identidad.

“YAPONI, EL NIDO DE LA LENGUA”-k Beatriz Bermúdez R.-k eta John Petrizzelli-k duela 10 urte baino gehiago mapoyo herri indigenan bideo eta audio bidez eginiko zenbait grabazio jasotzen ditu. Mapoyoak Venezuelako Guayana eskualdean bizi dira, Orinoco ibaitik hurbil eta haren bi ibaiadarrek mugatzen duten eremu batean; mapoyoek eskualdea arbasoen lurraldetzat eta haien bizi-espaziotzat dute. Haren legezko titulartasuna eskuratzea eta indigena gisa aitortuak izatea, nahiz eta hizkuntza galdu duten, herri indigena horren borroka-prozesu luzea izan da.

Grabazioetan, nagusiki, borroka horren protagonista diren emakume eta gizonen lekukotza jaso da, eta, haiekin batera, paraleloan, Beatrizek aldaketa- eta iraunkortasun-prozesuaren eta hizkuntza- eta identitate-prozesuaren inguruan egiten duen hausnarketa pertsonala ere jasotzen da.









Antropóloga y creadora multidisciplinar venezolana con amplia experiencia en el diseño y gestión de proyectos artísticos y culturales. Especializada en antropología visual y educación intercultural bilingüe. Escritora, realizadora de cine y video, promotora, investigadora y guionista, ha organizado y dirigido muestras, premios y festivales de cine y video; así como exposiciones, seminarios, videoforos, conferencias y talleres. Como activista social vinculada a los pueblos indígenas americanos, ha sido integrante de la Coordinadora Latinoamericana de Cine y Comunicación de los Pueblos Indígenas (CLACPI), desde su creación; asesora y colaboradora de la Red de Mujeres Indígenas y de otras organizaciones indígenas venezolanas, desde 1978. Actualmente, trabaja en la edición de una serie de vídeos sobre revitalización lingüística en pueblos indígenas venezolanos con idiomas amenazados y coordina una colección de publicaciones y animaciones infantiles sobre pueblos indígenas y migrantes.

Antropologoa eta diziplina anitzeko sortzailea da, Venezuelarra, eta eskarmentu handia du proiektu artistiko eta kulturalen diseinu eta kudeaketan. Antropologia bisualean eta kulturarteko hezkuntza elebidunean aditua, idazlea, zine- eta bideo-egilea, sustatzailea, ikerlaria eta gidoigilea, erakustaldiak, sariak eta jaialdiak antolatu ditu zine eta bideoaren arloan, baita erakusketak, mintegiak, bideoforoak, hitzaldiak eta tailerrak ere. Herri indigena amerikarrei lotutako aktibista soziala izanik, Herri Indigenen Zine eta Komunikazioko Koordinakunde Latinoamerikarreko kidea izan da (CLACPI), sortu zenetik. Emakume Indigenen Sareko aholkularia eta kolaboratzailea izan da, baita Venezuelako beste erakunde indigenetako ere, 1978tik. Egun, hizkuntza mehatxatuak dituzten herri indigena Venezuelarretako hizkuntza-biziberritzeari buruzko bideo batzuk editatzen ari da eta herri indigena eta migranteei buruzko haurrentzako argitalpen- eta animazio-bilduma bat koordinatzen ari da.

||
Huarte

ARTE GARAIIKIDAKO ZENTROA
CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO